

## **PROZESU DEMOKRATIKORAKO LEHEN URRATSA: EZKER ABERTZALEAREN OINARRIAK ETA BORONDATEA**

Independentistak gara, askapen nazionala eta soziala erdietsiko duen proiektua eraikitzeke eta garatzeko belaunaldi ezberdinetan lan egin eta egiten dugun gizon-emakumeak. Gure helburua berezko Estatu eraikitzea da, hori baita, gure ustez, Euskal Herria bizirik irautea eta erabat garatzea osoki bermatuko lukeen modu bakarra, Europako eta munduko gainontzeko herri guztiekin harmonian eta elkertasunean. Horixe da zilegitasun osoko gure proiektu politikoa, euskal jendartearen gehiengoaren babesari esker lortu nahi dugun proiektu politikoa.

Gure lurraldea zatikatzen eta herritarren eskubideak mugatzen dituen gaur egungo egitura juridiko-politikoak gatazka politikoa eta armatua iraunarazi besterik ez duela egiten berretsi da behin eta berriz. Izan ere, euskal herritarroei gure etorkizuna mugarik gabe erabakitzea galera izango digu.

Horrenbestez, indarkeria eta konfrontazio armatuko egoera inork nahi baino gehiago luzatu da, eta horrek, hain nabarmenak diren giza kalte eta kalte politikoak eragin ditu. Eszenatoki hau gainditzea gure lehentasuna da.

Gatazkaren azken hiru hamarkadok beste ondorio argi bat utzi dute: denborak arrazoia eman dion mugimendu politikoa bat gara. Horixe erakutsi du, frankismoarekiko haustura demokratikoa hasiera-hasieratik exijitu eta gero, Euskal Herriak Espainiako Konstituzioari, NATOri edota Lemoizko zentral nuklearrari ezezkua eman izanak. Horixe erakutsi du estatutismoaren iruzurra egonkor ez zedin ezker abertzaleak egindako lanak. Horixe adierazten du kapitalismo basatiari tinko aurre egin izanak.

Independentistok ez ditugu soilik oposizio edo protesta lanetan borroka politikoak eta ideologikoak irabazi. Ezker abertzaleak eginiko konponbiderako eta etorkizuneko proposamenek ere jendartean babes handia –zenbaitetan gehiengoarena– jaso izan dute. Negoziazio bidezko konponbiderako ekimenez, marko demokratikoa erdiesteko eginiko proposamenek eta eraikuntza nazionalaren aldeko jarduerak begi-bistako aurrerapenak eragin dituzte euskal prozesu politikoan.

Gaur egun, denontzat onuragarri izango den ziklo aldaketa desiragarri ez ezik, egingarri ere bada; azken hamarkadan, konponbiderako askatu beharreko korapiloak ondo baino hobeto kokatu dituen eztabaida politikoa ireki dugulako, milaka pertsonen eta gizarte sektore askoren lanak eta borrokek nahi dugun

egiazko aldaketa politikoaren atarira ekarri gaituelako eta gatazkak eragiten dituen ondorio gaiztoak gainditzeko beharra ere badugulako. Konfrontazio armatua, blokeoa eta itxaropen ezaren ordeztarriketa, akordioa eta Euskal Herriarentzat bidezko konponbide egonkor eta iraunkorra ekarriko dituen ziklo aldaketaren garaia da.

Lorpenekin eta akatsekin, askapen prozesua aldaketa politikora ekartzea lortu dugu. Orain, aldaketa atzerazin egitea dugu erronka. Eta aldaketa gauzatzeak geure burua aldatzea ere eskatzen du. Beraz, sakoneko autokritika ere beharrezkoa genuen, eta horixe bera egiten ari gara.

Ezker abertzaleak jakin badaki gako nagusia ez dela gainerako eragileak zer egiteko prest diren ezagutzeko zain egotea. Gakoa guk geuk egin beharrekoan dago. Fase berriak beste estrategia, beste aliantza politika eta beste lanabes batzuk eskatzen ditu.

Fase berrian eskuratu beharreko helburuak Euskal Herriaren nazio aitortpena eta autodeterminazio eskubidearen aitortpena izanik, aldaketa egiteko ezinbestekoa da gero eta zabalagoa izango den indar metaketa bideratzea eta konfrontazioa estatuak ahulen diren eremura eramatea; hau da, konfrontazioa eremu politikora eramatea. Horrenbestez, masa borroka, borroka instituzionala eta borroka ideologikoa, indar harremanen aldaketa eta nazioarteko babes bilatzea estrategia berriaren funtsezko oinarri izango dira.

Fase politikoaren oinarritzko lanabesa Prozesu Demokratikoa da, eta berau abiaraztea ezker abertzalearen alde bakarreko erabakia da. Haren garapenerako akordio bilateralak edo multilateralak bilatu beharko ditu; euskal eragile politikoekin, nazioarteko komunitatearekin eta, gatazka gainditu ahal izateko, Estatuekin. Azken batean, Prozesu Demokratikoa aldaketa politikoa eta soziala irabazteko ezker abertzalearen apustu estrategikoa da.

Ezker abertzalea gogoeta hauek guztiak bereak egiten ari da eskuarki, bere baitan erantzukizunez garatzen ari den eztabaidan. Aldi berean, ondoko oinarriak ere ezker abertzalearen militantzian eta oinarri sozialean berezko printzipio gisa are gehiago errotzea du helburu aipatu eztabaidak, eta horrekin batera, euskal jendartearekin, eragile politiko, sindikal eta sozialekin, eta nazioarteko komunitatearekin partekatu nahi ditugu. Hauek:

1. Konponbide demokratikorako prozesuaren erreferentzia bakarra bide baketsu eta demokratikoetatik adierazitako herri borondatea da, bai prozesua bera martxan jartzeaz konfidantza izateko, bai hark garapen egokia edukitzeko, bai eta herritarrek beraiek berretsi beharko dituzten akordioak erdiesteko ere. Euskal herritarrek, prozesuan zehar, une bakoitzean era aske, baketsu eta

demokratikoen bidez hartuko dituzten erabakiak errespetatuko dituela zinez hitza ematen du ezker abertzaleak, gainerako eragileek egin beharko luketen bezalaxe.

2. Unean uneko egitura juridiko-politikoak herri borondatearen ondorio eta herritar guztien eskubideen berme izan behar du. Herri borondateak libre eta demokratikoki adierazteko mugarik izan ez dezan, une bakoitzean indarrean diren legezko markoak ez dira inoiz oztopo edo galga izango, baizik eta berau betetzeko berma izan beharko dute.

3. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak; eta Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak aitortutako eskubideak errespetatu eta arautu beharko dituzte prozesu demokratikoan barrena egin beharreko akordioek, baita gizabanakoen edo kolektiboen Giza Eskubideei dagozkien nazioarte mailako bestelako arauak ere.

4. Euskal Herriko sentipen politiko ezberdinen arteko akordioak lortu ahal izateko, guztien artean eta baldintza berdinetan egin beharreko elkarrizketa politikoa izango da lanabes nagusia. Elkarrizketa horretan parte hartzeko borondatea osoa erakusten du ezker abertzaleak.

5. Prozesu demokratikoaren baitan, indar politikoen arteko elkarrizketak herritarrek berretsi beharreko Akordio Politiko erabakigarria izan behar du helburu. Ondoriozko akordioak proiektu politiko guzti-guztiak, baldintza berdinetan eta inongo indarkeriarik edo esku sartzerik gabe, defendatu ahal izatea ez ezik, gauzatu ahal izatea ere bermatu beharko du, hori bada hartara prestatutako legezko prozeduren bitartez euskal herritarren gehiengoak azaltzen duen nahia.

6. Prozesu demokratikoa erabateko indarkeriarik gabe eta esku sartzerik gabe garatu behar da, soilik bitarteko politikoak eta demokratikoak erabilia. Gure helburuen bila bideratutako estrategia politiko hau, aipatu prozesu demokratikoa sustatuz eta parte hartzea bultzatuz, aurrerapenak ekarriko dituela ziur gaude. Adibide argia Hegoafrika eta Irlanda dira.

7.- Anoetan egindako proposamenarekiko konpromisoa berresten dugu. Hain tresna baliagarriaren arabera, euskal indar politiko guztiek baldintza berdinetan jardunez aldeanitzeko akordio politikora zuzendutako elkarrizketa prozesua eratu behar dute, beti ere marko demokratikoa erdiesteko, hala, herri borondatearen muga besterik gabe, euskal jendarteak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki ahal izateko. Aipatu prozesua Mitchell senatariaren printzipioen baitan zuzendu behar dela diogu. Beraiekiko gure konpromisoa adierazten dugu. Bestalde, ETA eta Estatu espainiarraren arteko negoziazio prozesua eratu behar

da; desmilitarizazioaz, preso eta iheslari politikoen etxeratzeaz eta gatazkak eragindako biktima guztiei trataera bidezkoa eta zuzena emateaz aritzeko eta akordioetara heltzeko.

Honengatik guztiagatik, prozesu politiko baketsu eta demokratikoaren alde ageri-ageriko jarrera berresten dugu, demokrazia barneratzailea eraikiz euskal jendarteak aske eta inolako injerentziarik gabe bere etorkizuna erabaki dezan.

Euskal Herrian, 2009ko azaroak 14